



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: OBOEA 2019ko MARTXOAREN 21a

2019ko MARTXOAREN 21ean Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **oboe** espezialitatean. Bertan Christian Wetzel, Pascal Laffont eta Pedro José Rodríguez irakasleek eta Musikeneko **oboe** ikasleek parte hartuko dute.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten oboe ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten oboe ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburua

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertan egongo diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den errepertorioa barne.
- Ikastegia eta bere funtzionamendua ezagutzea.
- Espezialitateko irakasleak zuzenean ezagutzea
- Irakasleen iritzi eta aholku pertsonalizatuak jasotzea, eta aldi berean eskoletan erabiltzen dute metodologia ezagutzea.
- Dagoeneko Musikenen ari diren ikasleak entzutea.

Lan-egitasmoa

9.00-10.00: Ate irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Oboe espezialitatearen ikasketa-planari buruzko informazioa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera probei buruzko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

10.00-12.00: Pascal Laffont-en eskolak hautagaiei.

12.00-14.00: Christian Wetzel-en eskolak Musikeneko ikasleei.

14.00-15.00: Bazkaltzeko etenaldia.

15.00-17.00: Christian Wetzel-en eskolak hautagaiei.

17.00-20.00: Christian Wetzel-en eskolak Musikeneko ikasleei.

20.00-21.30: Musikeneko ikasleen entzunaldia, pianoan Pedro José Rodríguezek lagunduta.

Non:

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750 E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde (repelde@musikene.eus)

